

1090/84

LV-4-

EUSKERA



S. ANTON'GO KATEKESIA

ETXEBARRIA'TAR JUAN ANJEL

Fou. LV-4 - (C-1)

LABAYRU-IKASTEGIA
BIBLIOTEKA - DERIO
Sarr 29.397/96
Gara.
Tokia.

Idazti batean eman baiño len, zuzendu ta orraztu nai dugu lan au. Ori dala-ta, ande-
reño ta maixu bakoitzak bete ditzala oi baiño andiago diran bitarteak. Gero guri bialdu. Milla esker.

Ikasle-irakasleeri laguntzeko, orri banatan, zuzentzeko asmoz, onelako gaiak aterako ditugu:

GREZI'ko PHILOSOPHIA
AINTZIN-ELEIZAREN KONDAIRA
ESPAIÑI'ko ELEDERRA
EUSKALERRI'ko ELEDERRA
ERROMATARREN ELEDERRA

eta beste asko ta asko. Aurretiaz eskerrik asko. Ta, mesedez, idatzi gure ikastolara burura datorkizuenan oarrak eta oarkizunak egiñaz.

Egilleak

Euskal Biblioteka Labayru



1021605

Linguistika-2/(33.libx.)
Liburuxkak

IZKUNTZA

EUSKERA

Euskera, oi euskera,
zutan da gorderik
mendez mende egoki
euskaldun gogoia.

(Iratzeder)

Euskaldunok euskera darabilgu gure arteko izkuntza. Ala ere, ez da munduko izkuntza bakarra. Ezta urrik eman ere. Millaka itz egiteko era dago lur zabalean.

Au dala-ta, euskera zelakoa dan ikusi baiño len, izkuntza, itz egiteko almena zer dan ikasi bear.

Gizona jatorrizko izakeraz da gizartekoa. Izkeraren jaubea. Alkar ulertzeko zenbait ezaugarri ditu gizonak. Ederrena ta egokiena izketa. Jaungoikoak almen ori eman zion lenengotatik. Ain da gauza nabaria, Grezitarren artean Aristoteles andiak auxe esan zuan: Gizona gizarteango ta gizarterako biziduna. Lagunurkoaren berri jakiteko ta norberaren berri besteri emateko izkuntza bezelako biderik ez dago: Idia adarretik, gizona itzetik. Augaitik edo aregaitik gizonak bere barneko sentipeneri irtenbiderik ez damaienean ezin egona nabari duke. Barrua ustu ezik, estu. Euskal esaerak diona: Ezin esanaren mifia ta mifiaren ezin esana.

Jaungoikoaren Itza gizon egin zan, Gizadia salbatzeko. Itzaren bidez lagundu dezaioke gizonak bere anaiari aurrera egiten.

14
Izkuntzaren premiña ta zoragarria !Gizona berbaldun izatea dan andia!
Ala ere, itzari neurriak ezarri bear. Larra txarra da-ta. Gizon andi batek auxe
asmatu zizun: egoki itz egiteko auxe bear litzake beti: zer esan euki, era
onean azaldu ta gero ixildu. Gugaitik auxe idatzi eban Tirso de Molina
españiar antzerkigille ospetsuak: Vizcaino es el hierro que os encargo, corto
en palabras, en obras largo. Emandako itzak balio andia du. Gure artean,
itz ori betetzen ez dakianari: emandako itza jan du, esaten zaio. Ez dezagula
itza, izkera, izkuntza alperrik galdu. Euskal esaerarena: berbako gizona da,
iñorgaitik esan al ba'da, asmatu liteken goralpen andiena egiten zaio alakoari.
Ez izan iñoiz ere itz-ontziak, berba-lapikoak.

Gure nortasuna aberastuteko, gizontasuna ta euskalduntasuna batu
ditzagun. Izan gaitezen izkeradunak, berbadunak eta berbakoak.

Euskaldun jaio nintzan,

euskalduna azi.

Euskera utsik amak

eustan irakatsi.

Euskera maite-maite,

zabiltz nigaz beti.

Euskera il ezkeru,

ez dot gure bizi.

(Arrese-Beitia'tar Pelipe).

1a
Idaztiak: Juan Maragall, "Elogios" (Elogio de la palabra) Col. Austral.

Kaset-Diskoak: "Aur Kantariak"


Gure Inguruko Erderak

Lurbira guztiko izkuntzak ez dira jatorri berekoak. Beren legeak ez dijoaz bide beretik. Adar asko ez ezik berein sustrai ta enbor ere ba-dira.

Ikus dezagun gure inguruko nagusienak nundik nora dabiltzan, nolakoak diran.

Gaztelera, prantsesa, katalana, italianoa-ta, latinietik sortuak dira. Beste batzuk sajonak edo germanikoak ditugu. Griego-era ez da erdera oien aña jatorra. Ifudea edo. Askok lagundu die sortzean eta ainitz jakintza-itx eta esaera eman ere bai.

Ona mapa batean bakoitzaren sorlekua ta beren adarrak noraiño edatu diran:



XXXX: Erromatarren Imperioa.

Sorkaldean ez zan zabaldu beren izkuntza, ordurako griegok aurea artu bai zion.

Ipar-Afrika'n, denporagarrenean, arabierak ezabatu zun latifia. Beste lurraldeetan Erdi-Aroko gizaldietan erromantzeak asi ziran, ots, latini izkuntzaren adaxkak.

Erromanoak euskalerrietan ere egonak ziran. Alabaiña, euren izkuntza ez zan gure lurraz jabetu. Indar andia artu gurean, bai. Atzizkiak, itzak eta zenbait esan-era ere jasan ditugu aiengandik. Ala ere, geurea nagusi, orduan beintzat...

Gure ego-aldeko erdera, gaztelera, orain milla urte edo asi zan idazkietan agertzen. "Glosas Emilianenses", deritzan gutunean. Euskerazko itz bat edo beste ere agiri da orduantxe.

Lenengotan, gallegok eta katalanak indar andiagoa zuten eleder arazoetan. Geroago, berriz, Kastillako agintea sendotu zanezkoxe, gaztelera besteak bazterreratu ta menperatu egin zizkizun.

Gaztelera orrek ba-du iztegia, oguzkeran eta esakeretan euskerarekin zor aundia.

Gaztelera eta beste guziak ez dira bat eginda guztiz. Izkelgiak dituzte toki batean eta bestean. Berdin, prantsesa ta beste danak. Latiniaren antz andiena italiarok du. Ez da arritzekoa, lur aietan mintzatzen bai zan latiera bereziki.

Dalmaziera galdua da gaur egun.

Zenbakiak beste era batera idazten zituzten erromanoek: I, bat; X, hamar; L, berrogetamar; C, eun; XXII, ogeitabi. Eta olantxe dana.

Baina, guk, aiengandiko kultur-indarra ta eragiña artu ditugunok, bestela ematen ditugu zenbakiak: 1,2,10,22, eta abar. Au da, arabierazko zenbakiekin.

Erromanoek izkuntzagaz batera, pentsakera, jakintza-egarria ta legedia ekarri zituzten. Oiturak ere ugari. Oroitarri ta oroigailuak ez ezik, gogo-tajua ere, zati on batean, aieri zor dizkiegu sartaldekoek.



Mater Matuta (Goizaldeko Ama)
Florentzia'ko Arkeoloji-museoan.


Munduko izkuntzak

Txori guztiak bai dute beren abestia.
Baita erri bakoitzak izkera berezia.
Al ditugun izkuntzak ikasi ditzagun, baiña biotzez beti gure Euskera maitia.


Esan dugunez, gizonek itz egiterakoan mintzaera askotarikoak darabillez. Batzuk munduko toki askotan zabalduak: inglesa, prantsesa, alemana, errusoa, eta abar. Beste batzuk lurralde estuagoak dituzte mugatzat. Eta ba-dira beste batzuk gizonen zabarkeriz, eskasiaz edo indarkeriz il diranak ere: punikoera, dalmaziera eta Ameriketako indioenak; inbasoreek euren bakarrik artzen zuten aintzakotzat eta besteena pikutara.

Batzuk ofizialak dira estadu batean eta besteak ez. Alabiña, ba-dagoz estadu batzuk izkuntza ofizial bi dituztenak, edo geiago. Paraguay'ek gaztelera ta guarani-era. Peru'k gaztelera ta ketzua-era.

Ona emen andi-andika munduko izketa-modu batzuk.



Zazpi Euskalerrietan (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Be-Nafarroa, Lapurdi ta Zuberoa: zazpiak bat) euskera egiten da. Lengo denporetan edatuago zan euskera ta gaur Euskalerrria ez diran lur batzuetan ere egiten zan.



Guztietatik zein obe? Gizonak nola landu, noraiño aintzakotzat artu ta alakoxe indarra, baliña ta garrantzia eukiko dizkizu izkuntza batek. Guztiak dira onak eta onuragarriak. Baita itz egiten dutenentzat mesedegarriak ere. Ala ere, onelako edo arelako lanerako edo lanbiderako garai edo aldi batean batek besteak baiño laguntza andiagoa dakarkio gizonari. On da norberarenaz gain beste batzuk ere ikasten saiatzea. Mundua ta gizonak oro obeto ulertzeko ta maitatzeko ederki lagunduko dizu. Baiña arima, zeure izkuntza, berbetea, saldu barik.

**Ikasi daigun erdera, prantzes,
naiz ingelesan elia;
ikaste ori ontzat daukagu,
baiña lenengo geuria.
Izkuntza danak gurgarri dira,
autortu nai dot egia;
geuretzat, baiña, gurgarriena
Euskera maitagarria.**

Idaztiak: "Gure Urretxindorra" (Enbeita'tar Kepa'ren olerki guztiak)
Ekin, Buenos Aires.

Kaset-diskoak: "Aur kantariak".